



**IZENBURUA:** Jolas terapia- Theraplay®: lotura emozionala indartzeko teknika bat (5. Edizioa)

*Theraplay®* -an oinarrituta (Chicagoko *Theraplay* Institutua, Estatu Batuak)

**DESKRIBAPENA:**

Prestakuntza eremu honek Theraplay®-an oinarrituta (Chicagoko *Theraplay* Institutua, Estatu Batuak, ziurtasunean oinarritutako eredu) haurtzaroarekin eta familiekin lana garatzen duten profesionalak **atxikimendu sistema seguru bat gurasoen eta seme-alaben artean eraikitzeko eta sustatzeko, eta erlazio konfiantza bat indartzeko teknika bati hurbiltzea du helburu.**

**Adoptia zerbitzuak** (Agintzari GEK, 2005) Londreseko Adoption Center eta Chicagoko Theraplay institutuarekin esperientzia profesionalak partekatu ondoren, zerbitzuan orain dela 10 urte Theraplay teknikaren eta ebaluazio sistema erabiltzearen beharra ikusi zen.

Atxikimendua eta garapen binkularrean oinarritutako terapia egituratua da, bai ume eta bai guraso edo erreferentziazko pertsonekin erabil daitekeena. Helburua auto-estima, konfiantza eta atxikimendua indartzea da.

Terapia hau besteetatik ezberdintzen duten gakoak jokoak, zainketa eta estructures dira. Honen bitartez gurasoek erantzun sentibera eta sintonian emateko laguntza jasotzen dute.

**Theraplay® teknikak metodologia parte hartzailea eta ludikoa erabiltzen du. Honek familia kideen artean bizipen onuragarriak eta atseginak garatzea ahalbidetzen du, gero saioetan landutakoa sendotzeko etxean ere erabili ahal direnak.**

Azken 20 urtetan, neurozientziak egindako hainbat ikerketak gurasoen eta seme-alaben arteko harremanen eta elkarreragin goiztiarren garrantzi handia jakinarazten dute. **Zaintzaileek umeen segurtasun eta erosotasun beharrei ematen dizkieten erantzun enpatiko eta egokiak ezinbestekoak dira garapen osasuntsu bat eta atxikimendu seguru bat lortzeko.** Gaur egun, emozionalki auto-erregulatzeko gaitasuna, baita besteak ulertzeko eta haiekin enpatizatzeo abilezia, zaintzaile nagusiaren eta umearen arteko enpatia eta erregulazio bizipen goiztiarren menpe egongo dela dakigu.

Theraplay®-ak euren harreman-ereduetan hainbat aldaketa sustatzeko, bai adin goiztiarreko umeekin, bai nerabeekin erabil daiteke. Era berean, taldeka erabiltzeko egokitu eta garatu egin da. Estatu Batuetan eskoletan eta hainbat erakundetan ezarri da, baita beste herrialdeetan ere.

Teknika hauen ezarpenaren ondoren, gure ingurura moldatu ondoren eta 350 adopzio nahiz harrerazko familiekin izandako esperientzia kontuan izanda, irabazitako ezaguera partekatzeko eta lortutako emaitzak arlo ezberdinetako beste profesionaleri erakusteko gai garela ziur gaude.

**HARTZAILEAK:** Psikologia, psikiatria eta osasun arloko profesionalak eta haurtzaroarekin eta familiekin lan egiten duten terapeutak ere.



## HELBURUAK:

- Theraplay® teknikako aspektu teoriko nagusiak aurkeztea.
- Praktikan ezartzeko metodologia eta gai nagusiak ezagutzea.
- Familien atxikimendu sistemetan ezarpenaren inpaktua ezagutzea.
- Egoera errealen hausnarketa eta kontrastea erraztea.
- Jolas terapiaren jarduera nagusiak taldeka bizitzea.

## EDUKIAK :

- Theraplay®-a oinarritzen den aspektu teorikoak
- MIM (Marshack Interaction Method): zertan datza, nola ezarri, zer eskaintzen digu
- Theraplay®-an oinarrituta dagoen jolas terapiari hurbilpena
  - Banakako/familia ezarpena
  - Taldeko ezarpena
- Theraplay® tekniketako aspektu praktikoak
- Esku-hartzearen emaitzen ebaluaketa

## METODOLOGIA:

Mintegiak atal teorikoa izango, du non Theraplay® teknikako aspektu nagusienak garatuko diren.

MIM saio baten behaketa egingo da, baita bakarkako nahiz taldeko saioen behaketa ere. Metodologia erreflexibo eta parte hartzaile honen bitartez oinarritzko aspektuak ezagutaraziko dira.

Mintegi osoaren zehar bizipen-moduan landuko dira jolas terapiaren teknikak parte-hartzaileek lehenengo pertsonan bizi ahal izateko.

**TIPOLOGIA:** Presentziala

**SAIO KOPURUA ETA IRAUPENA:** 4 orduko 2 saio

**DATA:** 2020ko irailaren 25 eta 26an

**ORDUTEGIA:** ostirala 15.30etik 19.30era eta larunbata 10.00etatik 14.00etara.

**LEKUA:** Bilbo-n, Madariaga Etorbidea 1, 4. solairua. Ganekogorta aretoa

**SALNEURRIA:** 140 €

**HIZKUNTZA:** Gaztelania.



## FORMATZAILEA:

### Begoña Guijarro Masero



Gizarte Lanean Gradua, Deustuko Unibertsitatean. EVNTF-ko Familiako eta bikoteko psikoterapeuta, esku-hartze sistemikoetan aditua, FEAT-eko kidea. Esku-hartzean eta bitartekaritzan masterra. Atxikimendua indartzeko jolas-terapian aditua (The Theraplay Institute from Chicago).

Haurtzaroaren babesaren inguruko hainbat masterretan irakasle-kolaboratzailea Deustuko unibertsitatean eta profesionalentzako atxikimendu eta loturarekin lotutako ikastaroetan irakaslea.

Argitaratze desberdinetan parte-hartzailea, azpimarratzekoa izanik “La terapia de juego para el fortalecimiento del vínculo a través de técnicas de Theraplay®: intervención en un caso clínico - Play therapy for the strengthening of the link through theraplay techniques: intervention in a clinical case.” artikulua (Revista clínica contemporánea, C.O.P Madrid 2017). <http://adoptia.org/wp-content/uploads/2017/08/La-terapia-de-juego.pdf>

2009tik Agintzari GEK-o Adoptia zerbitzuan da arduraduna, harrera eta adopzioan aditutako zerbitzua.

## KOLABORATZAILEA:

### Itxaso Troyas Fdz de Garayalde



Psikologian Graduatua, Deustuko Unibertsitatean. Osasun orokorreko psikologian Masterra, Neuropsikologia klinikoan Masterra (GBL: “Rehabilitación neuropsicológica y estimulación cognitiva en patologías más frecuentes”) eta familia terapian formakuntza dauka.

Esperientzia dauka haur eta gazteen psikoterapian eta baita taldeen dinamizazioan ere, nabarmenenak resiliantzian eta mentalizazioan oinarritutakoak izanik, nerabezaroan ematen diren ibilbide desegituratuak saihesteko.

Bere argitalpenen artean aipagarriena Isep Clínic blogean egindakoa da, “Cómo ayudar a nuestros hijos a manejar la ira” izenekoa. <https://isepclinic.es/blog/como-ayudar-a-nuestros-hijos-a-manejar-la-ira/>

Gaur egun Agintzariko Arlobi-ADOPTIA zerbitzuan egiten du lan, Nafarroan, harrera eta adopzioarako zerbitzu espezializatuan